

# Estitxu Garai Artetxe: “Euskara publizitate on bat garatzeko hizkuntza aparta da eta probetxua atera behar zaio”

## [Ikusi Estitxuren bideoa](#)

Sektorean dagoen gabezia ikusirik, UEUK 42. edizioan “Publizitatea euskaratik eta euskaraz: nola asmatu zure erakundearen komunikazioa” ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren helburua erakunde baten komunikazioa euskaraz gauzatzeko oinarrizko printzipioak ezagutaraztea izan da. Estitxu Garairekin hitz egin dugu gaiaren inguruan.

### **Zer da ikastaroaren helburua?**

Euskaingintzan aritzen diren erakundeek premia bat dute, publizitateari eta komunikazioari buruz ikasteko beharra. Ikastaro honekin lortu nahi duguna beraz, erakunde baten komunikazioa kudeatu behar duen jendeari jarraitu beharreko oinarrizko printzipioak zeintzuk diren erakutsi eta komunikazioa kudeatzerako orduan pista batzuk ematea da.

### **Zein da euskararen kalitatea publizitate sektorean?**

Iragarle handiak nahiko kalitate eskaseko iragarkiak gauzatzen dituzte euskaraz. Izan ere, iragarkiak gaztelaniaz sortzen dituzte eta ondoren euskarara itzuli. Prozesu horretan Euskarak kalitate dexente galtzen du. Herrietan aldiz, euskarazko publizitate oso ona egiten da.

### **Beraz, arazo nagusia gaztelerazko mezuak dauden bezala itzultzen dituztela da?**

Arazo nagusia hori da bai, baina gauza askoz ere sakonagoa da. Publizista bakoitzaren atzean mentalitate bat dago eta horietako askok ez dute euskara tresna eraginkor moduan ikusten.

### **Zeintzuk dira euskaraz publizitatea egiterakoan enpresek aurkitzen dituzten zailtasunak?**

Berez ez dago zailtasunik publizitatean euskaraz aritzeko, esan bezala, euren pentsamoldea da oztopo nagusia. Hala ere, kontziente izan behar gara euskaldunen merkatuak ez dituela beste merkatu baten moduko dimentsioak, hiztun kopurua mugatua delako. Hori dela eta, ezin dugu inpaktu kuantitatiboetan pentsatu. Horregatik, hizkuntza plangintza oso garrantzitsua da. Aldez aurretik jakin behar dugu zer da lortu nahi duguna eta zein izan daitekeen euskararen funtzioa mezu hori zabaltzerako orduan. Zenbait kasutan, finkatutako helburuen arabera, inpaktu kualitatibo horrek, mila inpaktu kuantitatibok baino gehiago balio dezake.

### **Zeintzuk dira publizitate kanpaina bat burutzeko urrats nagusienak?**

Publizitate kanpaina bat gauzatzeko prozesua oso luzea da, beraz, gaitetik azalduko dut. Lehenengo pausua zenbait gauza zehaztea da: enpresaren helburua, xede taldea, enpresaren ikuspuntua, enpresaren balioak, marketin planifikazio orokorra... Ondoren, kanpainan murgilduko ginagake. Kasu honetan, nik estrategiari emango nioke garrantzia gehien. Oso garrantzitsua da zer nahi den jakitea, hau da, jarraituko den estrategia garbi izatea. Behin hori argi eduki ondoren, sormen lana hasten da, baina ez alderantziz. Gure mezua era gustagarri batean esaten badugu askoz hobeto, baina gauzak pausuz pausu egin behar dira. Bestalde,

hedabideen plangintzak ere badauka bere garrantzia eta zabaldutako mezuaren jarraipen bat egitea ere interesgarria da.

### **Ikastaroa ez dago komunikazioaren arlokoei zuzenduta. Zergatik?**

Ikastaroan oinarrizko ezagutzak landuko ditugu, beraz, ez nuen nahi komunikazio ikasketak dituen jendea egotea, batez ere maila non jarri jakiteko. Publizitatean xede taldea ondo definitu behar dela esan dugu lehen eta hemen ere berdina gertatzen da. Talde oso heterogeneoa osatuko bagenu ezingo genuke mezu bateratu bat eraiki. Hala ere, zaila izaten da talde homogeenoa bat lortzea.

### **Zeintzuk dira euskarazko publizitatearen etorkizuneko erronka nagusiak?**

Profesionalen aldetik, bezeroei ideia nagusi bat transmititzeko erronka dute, euskara publizitatean aritzeko aukera oso ona dela, hain zuzen ere. Iragarleen ikuspegitik, publizitate hizkera landu behar da. Izan ere, euskara modu jostagarri batean erabiltzen bada, publizitateak bere euskara propioa sortuko du. Hori erabilerarekin sortzen da. Publizitatea hizkera unibertsala da hizkuntza guztietan, baina hizkuntza bakoitzaren ezaugarrien arabera moldapenak daude. Argi dago gauza guztiak ez dutela funtzionatzen hizkuntza guztietan. Bertsolaritzan ikusten den moduan, euskarak hitz jokoak, elipsiak... egiteko aukera ematen du eta ia ez da erabiltzen. Nire ustez euskara publizitate on bat gauzatzeko hizkuntza aparta da eta probetxua atera behar zaio.

---

---

## **Zuhaitz Beloki: “Datu kopuru handiekin lan egiten duen edozeinek aprobe txatu eta eskertuko ditu NoSQL datu-baseen ezaugarriak”**

### **[Ikusi Zuhaitzen bideoa](#)**

Azken hamarkadan asko zabaldu den NoSQL datu-baseen kudeaketa sistemak ezkutatzen duen misterioa argitzeko parada heldu da Eibarko Markeskora. Zuhaitz Beloki irakaslearen eskutik, ‘NoSQL datu-baseak. MongoDB’ izeneko ikastaroa abian da, UEUko 42. edizioaren barruan. NoSQL izeneko datu-baseak ezinbestekoak dira datu kopuru erraldoiak biltegitatzeko. Gauzak horrela, ikastaro honetan izena eman dutenek datu-base horiek gertutik ezagutzeko eta aurkezten dituzten ezaugarri nagusiak barneratzeko abagunea dute. Teoriaz gain, laborategi-praktikak egingo dira. Bertan, MongoDB NoSQL datu-basea erabiltzen ikasiko dute.

Orain arte datu-base erlazionalak (SQL) izan dira jaun eta jabe. Orain, bada, fenomeno berri bat hasi da bere lekua bilatzen: NoSQL datu-baseak (Not Only SQL), alegia. Zuhaitz Belokik azaltzen du, NoSQL datu-baseen helburua, datu kopuru erraldoiekin oso abiadura handia lortzea dela. Datu-base erlazionala, aldiz, ez da hori gertatzen. Bilatzen dutena zera da: datuak xehetasun guztiekin egituratzea eta kudeatzea. Azaltzen du: “Datuen trinkotasuna oso

garrantzitsua da SQL datu-base hauetan; horrek, baina, sistemaren abiadura mugatzen du nolabait”. Hortaz, hori da aipatu beharreko desberdintasunetako bat. Izan ere, NoSQL datu-baseetan egitura eta trinkotasuna ez dela “hain garrantzitsua” argitzen du. Kasu honetan, eraginkortasuna da kontuan hartzen den ezaugarria: “Horregatik, Google, Facebook eta Amazon bezalako enpresek ahalegin berezia egin dute datu-base mota honen alde”.

Belokiren esanetan, NoSQL Datu-baseak (erlazionalen kasuan bezala), domeinu baten inguruko datuak modu egituratu batean gordetzeko erabiltzen dira (enpresa bateko langileak, kirol-txapelketa baten informazioa, denda baten katalogoa...). “Lehenik eta behin, esku artean dauzkagun datuak nola antolatuko diren pentsatu behar da, eta gero datu guztiak datu-basean sartu. Datu-baseek, gero, geure datuen gainean ia edozein kontsulta mota egitea ahalbidetzen digute, kontsulta-lengoaia bati esker. Adibidez, online-denda batean azken hilabeteen gehien saldu den produktua zein den edo zenbat erabiltzaile berri erregistratu diren kontsultatu ahal izango da”.

Egun, enpresa askotan informazio handiak maneiatzen direla azaltzen du, web-munduan bereziki. Horren kariaz, Belokik dio datu kopuru oso handiekin lan egiten duen edozeinek erabili ditzakeela datu-base hauek: “Big data izenez ezagutzen den kontzeptu honen beharra asko zabaldu da munduan eta, beraz, datu kopuru oso handiekin lan egiten duen edozeinek aprobetxatu eta eskertuko ditu datu-base hauen ezaugarriak”.

NoSQL datu-baseak web munduan oldarka sartu diren arren, Belokik dio SQL datu-baseak oraindik ere gehien erabiltzen direnak jarraitzen dutela izaten: “Oso sartuta daude gizartean”. Datu-base erlazionalak betidanik ezagutu ditugunak dira. Egokienak izaten jarraitzen dutela aipatzen du Belokik, eta erantzuna arrazoitzen du: “Askotan datuen eredia haietara hobeto egokitzen dira eta hainbeste urtetan azpiegitura eta tresna asko sortu dira hauek kudeatzeko”. Gehitzen du enpresa edo proiektu gehienetan tresnak datu-base erlazionalekin lan egiteko egokিতa daudela, eta, beraz, aldatzeko arrazoi berezirik ez dagoen bitartean, hauek erabiltzen jarraituko dutela.

Aurretik aipatu bezala, ikastaroaren helburuetako bat da MongoDB sistema hori erabiltzen ikastea. Belokik azaltzen du: “MongoDB NoSQL familiako datu-base kudeaketa sistemarik erabiliena da gaur egun. NoSQL familiako datu-base guztiak bezala, datu askorekin ere oso azkarrak izateko egokিতa daude”. Horretaz gain, MongoDB-ren beste ezaugarri nagusi bat aipatzen du irakasleak; hots, dokumentuetan oinarritutako sistema dela: “Dokumentu izaera duen edozein informazio bete-betean egokitzen da sistema honen eredura, eta oso modu naturalean egingo da lan hauekin, direla egunkarietako artikuluak edo web guneetako dokumentuak. Hala ere, argitzen du edozein informazio mota adierazi daitekeela MongoDB-ren dokumentu-ereduarekin ere: “ez da dokumentu izaera duen informazioa gordetzeko bakarrik erabilgarria”.

Amaitzen du esanez, NoSQL familiaren barruan oso izaera desberdineko sistemak sartzen direla (MongoDB sistemaz gain, badaude beste batzuk: Cassandra, CouchDB etab) eta denek berezko ezaugarri jakin batzuk betetzen dituztela dio. “Ezin da esan, beraz, bata bestea baino eraginkorragoa denik, beharren arabera bata edo bestea egokiagoa izango baita”. Hala ere, egin diren neurketen arabera, MongoDB da gaur egun gehien erabiltzen den NoSQL sistema, eta, gainera, urtetik urtera asko hazten ari da.

# **Iñaki Alegria: “Udako Ikastaroen funtzioa ikasleek haien ezagutza zabaldu eta profesionalekin harremanak bultzatzea da”**

## **[Ikusi Iñakiren bideoa](#)**

Udako Ikastaroen 42. edizioa abian da jada Eibarren eta Iñaki Alegriarekin, UEUko zuzendariarekin, hitz egiteko aukera izan dugu. Informatikan aditua den donostiarrak “Saretu” leloa daramaten aurtengo ikastaroek zer espero duen adierazi digu. Horrez gain, ikasle zein profesionalak urtero-urtero bilgune diren ikastaroetara etortzeko animatu ditu.

**Aurtengoa Udako ikastaroen 42. edizioa da, jada hasi berriak dira Eibarko ikastaro batzuk, zer espero duzu bertatik?**

Aurten inoiz baino ikastaro gehiago dauzkagu. Matrikulazioa ondo joan da eta egia esan, dauzkagun datuekin badakigu arrakastatsuak izango direla. Jendea, beste urtetan bezala, pozik ateratzea eta esperientzia ona izatea espero dugu, asko ikastea eta datorren urterako ere bueltatzeko asmoa izatea.

**“Saretu” da 42. edizioaren leloa, zer edo nor saretu nahi duzue?**

Saretu UEUren urte osorako leloa da, Udako Ikastaroak dira jarduera ezagunenak. Alde batetik jakintza arloen arteotasuna landu nahi dugu. Ohiko unibertsitateetan espezialitate bakoitza ondo lantzen dira baina jakintza arloen arteko harreman horretan hutsuneak daudela nabaritzen dugu eta gure ikastaroak hutsune horiek betetzera datoz. Irakasle, profesionalen eta ikasleen arteko harremana ere landu nahi dugu. Tartean jardunaldiak antolatzen ditugu eta bertan profesionalen eta ikasleen arteko harremana sustatzen da. Gu erakunde txikia gara eta gure eginkizuna beste batzuekin elkarlanean aritzea da eta Udako Ikastaroak horretarako tresna ere badira.

**Zein funtzio betetzen dute gaur egun UEUren udako ikastaroek?**

Adinean sartuta gaudenok UEU Udako Ikastaroen antolatzaile bezala ezagutu dugu eta orduan unibertsitate munduko ikasleak soilik biltzen ziren. Urteetan zehar hori asko aldatu da eta gaur egun erdia baino gehiago profesionalak dira eta gaia beraren interesarengatik etortzen dira. Lehen, unibertsitate mailan euskaraz aritzeko erreferentzia zen, besterik ez zegoelako. Egun, zorionez aukerako gehiago daude urtean zehar UEUrekin edo beste unibertsitateekin aritzeko. Beraz, UEUren Udako Ikastaroen funtzioa da ikasleek haien ezagutza zabaltzea eta profesionalekin harremanak bultzatzea.

**Azkeneko urte hauetan goranzko joera nabaritu duzue izen emateetan, aurten ere horrela mantentzea espero duzue?**

Duela bi urte igo ziren matrikulazioak, iaz ere apur bat eta gure helburua gutxienez mantentzea. Oso pozgarria izan da Baionan eman den igoera. Historikoki gure lehenengo tokia da eta aurten arrakasta handia izan dugu bertan antolatutako ikastaroetan.

### **Zertan nabarmentzen dira UEUko ikastaroak besteengandik?**

Besteak ez bezala, gureak formatu txikikoak dira. Euskara hutsez dira, batzuk oso praktikoak, beste batzuk berriz hausnartzekoak. Irakasle eta ikaslearen arteko harremana oso horizontala da eta horrek jakintza bien artean partekatze aukera ona ematen du.

### **Zer esango zenioke UEU ezagutzen ez duen norbaiti udako ikastaro batetara ekarrarazteko ?**

Giro euskaldunean bizi bada, beste urteetan bertan izan direnekin hitz egiteko gomendatuko nioke. Orokorrean jendeak oso oroimen ona du Udako Ikastaroen inguruan, askok errepikatzen dute. Aniztasun handia dago eta ziur ikastaroren bat gustoko izango duela. Giro euskaldunean bizi ez bada, lagun euskaldunak egiteko toki oso aproposa da gurea.

### **Lehenbiziko aldiz biziko dituzu udakoak zuzendari bezala. Oso desberdina al da ikuspuntua?**

Ondo baino hobeto ezagutzen ditut ikastaro hauek. 25-30 urtetan zehar ikasle eta irakasle bezala parte hartu izan dut. Geroago, ikastaroen antolatzaile moduan ere izan nintzen baina orain lan gehiago suposatzen dute ikastaroek niretzat baina aspalditik ezagutzen ditudanez, ondo moldatzen naiz.

### **Ikastaroren batean izena eman duzu? Zein ikastaro egingo zenuke?**

Bai. Baionan Uztailaren 9-11 bitartean emango den Giza Eskubideen Europako Auzitegiari buruzko ikastaroan izena eman nuen, baina bilera garrantzitsua dela eta ezin izango dut bertara joan. Hala ere, gaur Eibarreko egoitzan izan den mahainguru batean egon naiz, beste batzuetan antolatzaile moduan ere izango naiz, beraz beharbada aurrerago ikastaroren batean parte hartu ahal izango dut.

## **BIHARKO AGENDA. Uztailak 3, Osteguna**

### **NoSQL datu-baseak: MongoDB**

9:00-14:00

Gaiak:

- 1. Sarrera.
- 2. NoSQL datu-baseen ezaugarriak.
- 3. Eredu erlazionalarekiko desberdintasunak.
- 4. NoSQL sistema ezagunenak.
- 5. MongoDB.
- Datu-eredua.
- CRUD eragiketak.
- Indizeak.
- Bestelako ezaugarriak: Erreplikazioa (replication) eta partizionatze horizontala (sharding).
- Praktika I: oinarriko erabilera.
- Praktika II: MongoDBren APIa Java eta Python lengoaietarako.

Irakasleak:

- **Zuhaitz Beloki Leitza:** Informatikan Ingeniaria da, eta Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra egin zuen. Gaur egun, Ixa taldean ikerlari
- lanetan dabil eta doktorego-tesia egiten ari da.

Twitter: @zbeloki

### **Literaturaren ahozko baliabideak**

9:00-13:00/15:00-17:00

Gaiak:

- Erabat praktikoa
- Haur literaturan oinarritua eta ahozko baliabideak lantzeko bideratua
- Gidoi gisa erabiltzeko fotokopiak banatuko dira, baina ekintza izango da nagusi: jokoa, irudimena, umorea, partaidetza, harremana

Irakasleak:

- **Yolanda Arrieta Malaxetxebarria** (Etxebarria, 1963). Irakasle ikasketak, Antzerki ikasketak, Kultur eta Gizarte Antropologia. Hogeita bi urte
- literaturgintzan, sortzaile eta dinamizatzaile. [www.nitkgura.com](http://www.nitkgura.com)

### **Agroekologia, ikuspegi soziologikoaren hastapenak: generoa, sindikalgintza eta parte-hartze prozesuak**

Ordua	Edukia	Irakaslea
9:00-10:00	Agroekologia: trantsizioarako gure bidea lantzen	Iñaki Antigüedad Auzmendi
10:00-11:00	Agroekologia eta generoa	Arrate Corres Velasco
11:00-11:30	Atsedena	
11:30-14:00	Elikadura burujabetza generoaren ikuspegitik, mintegia	Assumpta Ayerdi Olaizola Edurne Rey Delgado

Ikastaroak jarraitzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI42](#) [#saretu](#)

**Informazio gehiago eta matrikula:  
[www.ueu.org](http://www.ueu.org)**